



22. Korrika.

Koronabirusa, berrogeialdia, konfinamendua, maskara, test azkarra... gogoan al dituzue? Ez zarete okertu, 22. KORRIKAri eskainitako podcastean zaudete, bai. Izan ere, pandemiak mundu osoa astindu zuen, geure KORRIKA kutuna tartean. Ongi entzun: "KORRIKAren 22. edizioa urtebete atzeratu zen, 2022ra arte. Halaxe erabaki zuen AEK-k, garai hartako osasun egoerak baldintzatuta"

Hortaz, aurreikusi ez zen urtean egin zen Aiaraldean, Amurrión, hasi zen edizioa. 2022ko martxoaren 31n abiatu zen; Arabari zegokion hasiera, behin aurrekoa Gasteizen amaituta. Apirilaren 10ean bukatu zen Donostian. "HITZEKIN" izan zen leloa, hitza eta ekina azpimarratu nahi izan zirelako 22. KORRIKAren mezuan. Azken batean, hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea.

Bestalde, dagoeneko podcast hauetan ezaguna den hirukoteak jaso zuen merezitako aitortza, KORRIKAk Pirritx, Porrotx eta Marimotots omendu zituelako. Pailazo ezagunek euskara ez zutenean, euskara ikasteari edota hobetzeari EKIN zioten, eta, orduz geroztik, euskara ahoan ibili dute urte hauetan Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek zuzeneko eragina izan dute ume eta guraso askok euskararen hautua egin dezaten. Omenaldia non eta GURE ZIRKUAn egin zen, elkarlanean, 2022ko urtarrilean. KORRIKAren ikasturtean murgilduta geunden, noski, KORRIKA bi hilera bazetorren, baina omenaldi-ekitaldian oso gertu bizi genuen oraindik ere koronabirusaren itzala: edukiera murriztu, musukoak nonahi eta gaitzak jota azken orduan etxean geratu behar izan zuten gonbidatuak, besteak beste.

Baina arazoak arazo, berriro egin nahi genuen KORRIKA zurekin, berriro egin mundua zurekin, 22. KORRIKAren abestiak zioenez. Nerea Urbizu izan zen lanaren zuzendaria, eta Sustrai Colinaren hitzekin, Nerea bera, Anari eta Ana García ibili ziren kantari. Errepasoarekin segituta, hau ere aintzat hartu: Txakurgorria sormen kolektiboak egin zuen UHINAK lana, edizio horren dokumentala. Hemen ikusi nahi? Bada, ez, ez da unea. Dena den, ez etsi: jo ezazue KORRIKAren webgunera, www.korrika.eus, hori eta beste gauza asko aurki ditzakezue-eta. HISTORIA izeneko atalean, edizio guztietako informazioa biltzen ari gara, eta KORRIKATEKA izeneko atalean, aukera duzue hamaika baliabide kuxkuxeatzeko.

Amaitu ondorengo balorazioan, AEK-k azpimarratu zuen moduan, urtebete geroago izanik ere, xede nagusietako bat zen KORRIKA egitea. Egin genuen, eta esan dezakegu orain arteko ezagutu dugun bidetik joan zela. Esaten da koronabirusa geratzeko etorri dela, baina 22. KORRIKA ez zuen (ia) tokirik eduki, ekimena normaltasunez egiteko baldintzak parez pare azaldu eta...

KORRIKA egin genuen! Oso Korrika garrantzitsua izan zen! Ikaragarria izan zen euskararen olatua berreskuratzea, errepidera ateratzea, baita azarotik apirilera Korrikaren ikasturtea ia normaltasun osoz gauzatzea. Hamaika egun horietan bizitakoa itzela izan zen: Amurriotik Donostiara Euskal Herriko errepidetan gertatu zena zinez indartsua izan zen. 22. KORRIKAk eragin zuen astindua han eta hemen komentatu zen, herri-pultsuaren berrakibazioaren adibiderik egokiena izan zen, 2020ko martxoko konfinamendu hark ekarri zuen bizimodu "berria" gainditua.

Bukatzen hasteko, edizioaren irudi gogoangarriei dagokienez, kronika labur honek ezin ditu bazterrean utzi KORRIKAk elurpean egindako kilometro horiek, KORRIKA bera ia kolokan jartzeraino utziz, baina aurrera egiten segitzen zuen herritarren bultzada ederrari esker. Eta irudiak aipatuta, hona ere ekarri behar dugu zuzeneko seinalearena. Errepideetan jendez lepo, eta horrez gain, esan daiteke KORRIKArik jarraituena izan zela, milaka eta milaka begik segitu zutelako KORRIKA pantailaren bidez. Jakin badakigu amaitu eta hurrengo egunean jende askok youtube-ra jo zuela, KORRIKAren zuzenekoaren menpekotasuna gainetik ezin kendu.

Orain, bai, amaituko dugu, eta Karmele Jaioaren ahotsarekin utziko zaituztegu, gasteiztarrek sortu eta irakurri zuelako Donostiako amaiera beroan eta gogoangarrian ezagutu zen mezua, lekuko barruan eskuz esku ibili zena.